egiten duen lana eta erantzukizuna ere. Horrela, departamentu horretan egiten den lanak askozaz harutzago eramaten ditu, pertsona horiek benetan lana egiten duten edo ez jakitearren ordu ezberdinetan hitzorduak jartzen zaizkielako. Modu horretan —derrigorrezkoa ez bada ere— jarduten dute ere oinarrizko diru-sarrerak bermatzeko garaian. Horregatik, EAJ/PNV-ek lan hori goraiatu baino ez du egiten. Eta, lehen zioen moduan, aurreko urteetan proposamen honen oso antzekoa egin zuten. Objektibitatearen inguruan kontrako arrazoiak ematen ziren, izan ere, denei gustatuko bailitzaieke mundu ideal batean bizitzea, hots, inor eskapatu ez litzatekeen batean, alabaina, uste du, kontuan hartu behar dutela administrazioan zeharkako kostuak daudela. Bere aburuz ez da bideragarria diru-laguntza bi bidetik ematea edo Errenteriako udalak diru-laguntzak “ad hoc” ematea. Bere iritziz, oinarrizko diru-sarrerak jasotzen dituen eskatzen zaizkion baldintza guztiak betetzen ditu; lan-errendimenduak zein besteak kontabilizatzen dira, erroldatze-baldintzak, etab. betetzeaz gainera. Eta horiek jasotzen dituen pertsonak beharra du. Batzuek momentuko egoerak biziko dituzte eta beste batzuek

propuesta adelante y a lo mejor las nuevas caras y los nuevos tiempos hacen posible que las ciudadanas y ciudadanos verdaderamente necesitados del municipio puedan tener una consideración especial desde el punto de vista institucional. Por otro lado, le toca intervenir después del portavoz del PP y desde luego tiene que negar a la mayor. Picaresca hay como en todo, pero no puede dejar que quede en lo alto que haya fraude y picaresca generalizada en el tema de las ayudas sociales y en concreto en la RGI. Le consta y así les debiera constar a todos, el excelente trabajo que hacen desde el Departamento de Servicios Sociales, tanto de la Diputación como del Ayuntamiento, para vigilar no solamente que se cumplen los requisitos objetivos que marca la Ley para poder percibir esas ayudas,

sino que la implicación en el trabajo y la responsabilidad en la gestión del dinero público que se realiza desde el Ayuntamiento y en concreto desde ese Departamento, les lleva a ir mucho más allá, incluso a citar a las personas a diferentes horas para saber si realmente trabajan en B o no. Como esto, hacen también un despliegue de indagaciones que no son imprescindibles para dar la RGI que, al menos por parte de EAJ/PNV, no merecen más que reconocimiento. Como decía, otros años se ha hecho esta propuesta, que si no era la misma era muy similar. Se ponían objeciones con respecto a la objetividad y es que a todos les gustaría vivir en un mundo ideal en el que no se escapara ni un solo caso, pero en la administración también hay costes indirectos. Lo que no es viable es que se haga una doble vía de subvención o una subvención ad hoc del Ayuntamiento de Errenteria. Cree que quien recibe la RGI cumple todos los requisitos exigidos, se contabilizan tanto los rendimientos de trabajo como otros, además de cumplir los requisitos de empadronamiento, etc., y desde luego las personas que la reciben están en situación de necesidad. Algunas, puntualmente y otras, en situaciones de



egonkortuak, izan ere, arazoak mota askotakoak direnez, ezin dituzte aboratu osoko bilkura batean. Berak ez du uste eskandalurik ematen denik, eta ez diete batere mesederik egiten erakundeei horien barrutik mota horietako baieztapenak eginez. Amaitzeko esan du proposamena bi urteko atzerapenarekin datorrela, baina iritsi denez, bere taldeak aldeko bozka emango duela.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du solidarioak izan behar dutela eta are gehiago krisia garaian, arazo sakonak dituztenean, drama handia bizi duten pertsonak eta sendiak daudenean. Alabaina, sominduta dago azken urteotan, erantzukizunik gabe jardunez, gizalegerik gabeko eta politika duingabetasunak praktikan ipini dituztelako, izan ere, horrela jardun du oposizioen batek, eta ondorioz, Udal honek ezin izan du urte horietan aplikatu gaur —espero du— onartuko dutena. Bera bat dator EAJren bozeramailearekin, honek Gizarte Zerbitzu on batzuk dituztela esaten duenean. Berak espero du zorrotz jardungo dutela exijitu beharreko datu eta kontrol bezainbeste eskatuz, jakinda Departamentuko teknikariek nola jarduten duten, zalantzarik ez du modu horretan jardungo dutela. Eta horregatik, bere taldeak proposamenaren alde bozkatuko du.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du eurek ere proposamenarekin bat egiten dutela, hain zuzen gehien behar dutenei laguntzak ematea delako euren lana egiteko modua. Bestalde, kezkarria iruditzen zaie, datu zehatzik gabe, mahai gainean jartzea Gizarte Zerbitzuetatik egiten den lana, pikarokeria, etab. Eurek bat egiten dute Maite Peñak (EAJ/PNV) esan duenarekin. Izan ere, euren iritziz, Gizarte Zerbitzuetan oso ondo egiten da lan, nahiz eta beti egongo den, toki

necesidad consolidadas, los problemas son muy diversos y no se pueden abordar en un Pleno. No cree que haya escándalo social, y flaco favor hacen las instituciones cuando desde el mismo seno de las mismas se vierten estas afirmaciones. Finaliza repitiendo que la propuesta ha llegado dos años tarde, pero ha llegado y su Grupo votará a favor de la misma.

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que efectivamente tienen que ser solidarios y más en una época de crisis, de problemas acentuados, de situaciones por tanto personales y familiares de un gran dramatismo. Se siente indignado por el hecho de que en los dos últimos años, por el ejercicio de irresponsabilidad y haciendo prácticas políticas de lo más inhumanas y de lo más indignas, alguna oposición haya actuado de esa manera, lo cual ha llevado a que este Ayuntamiento no haya podido aplicar en esos años lo que hoy confía, se va a aprobar. Coincide con la portavoz del PNV en que tienen unos magníficos Servicios Sociales, espera que se sea riguroso exigiendo cuantos datos y controles haya que llevar a cabo, algo que sabiendo del buen hacer de los técnicos del Departamento, no le cabe duda de que así se hará y por tanto su Grupo votará a favor de la propuesta.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que están de acuerdo con la propuesta, puesto que la concesión de subvenciones es su forma de trabajar. Por otra parte, consideran que es preocupante que, sin disponer de datos concretos, se cuestione la forma de trabajar de los Servicios Sociales mencionando la picaresca, etc. En ese sentido están de acuerdo con lo manifestado por Maite Peña (EAJ-PNV), ya que, a su juicio, en Servicios Sociales se



guztietan bezala, gauzaren bat gaizki. Halere, hori zalantzan ipintzea nahiko kezkarria iruditzen zaie.

trabaja muy bien, aunque siempre puede haber, como en todos los lados, algo que esté mal. De cualquier modo, que se ponga en duda eso, les parece preocupante.

* Herzog jaunak (PP) esan du denek pikarokeriarik ez dela ematen Gizarte Zerbitzuetan konfiantza dutenez, eurek ez dutela bestelakorik baieztatuko, hain zuzen ez dutelako zatar geratu nahi, eta ondorioz, proposamenaren alde bozkatuko dute. Beraz, bada, eurek ere konfiantza emango diote, gainontzeko taldeek diru-laguntza emateko egiten denari eman dioten moduan.

* El Sr. Herzog (PP) señala que no se van a descolgar, puesto que todos tienen confianza en que los Servicios Sociales llegan a cerrar la picaresca, no van a ser ellos los feos de la cuadra y votarán también a favor de la propuesta. Darán su confianza a la confianza que el resto de los Grupos deposita en el buen orden en la entrega de las subvenciones de las que están hablando.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad,

ERABAKIDU

ACUERDA

OHZ, ura eta estolderia, eta zabor-bilketa ordaintzeko familia batek batez beste behar duen kopurua zenbatetsi eta horren % 70eko diru-ekarpena egitea 2012ko urtarrilaren 1ean diru-sarrerak bermatzekoa baino gehiago jasotzen ez duten etxebizitza-jabe eta etxebizitza-maizterrentzako. Berori ondorengo bi eratakoa izango da:

Realizar una aportación económica del 70% de la cantidad media que se estima que una familia puede pagar en concepto de IBI, Agua y Alcantarillado y Recogida de Basuras a los propietarios y arrendatarios de viviendas que sean perceptores al 1 de enero de 2012 de la Renta de Garantía de Ingresos, en sus dos modalidades:

a) Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako diru-sarrera.

a) Renta para inclusión y protección social.



b) Laneko diru-sarrerak osatzekoa.

Udalak erabaki hau gauzatzeko asmoz balizko onuradunei egoki iritzitako dokumentazioa eskatu ahal izango die eta, nolana ere, ezinbesteko baldintza gisa, udal zergetan eguneraturik egotea eskatuko du.

Jarraian.

Mintzatu dira:

* Angulo jaunak (aurreko legegintzaldian atxiki gabeko zinegotzia) esan du oso hitz mesprexugarriekin aitatu dela azken urteetan diru-laguntza eta laguntzei buruz eurek izandako jarrera. Haren esanetan ezker abertzaleak onurak mantentzearen aldeko jarrera garbia hartu zuen. Arazoa, ordea, teknikoa zen, alderdi Sozialistak denei 400 euroko laguntza eman nahi zielako, hau da, Ondare Higiezinaren gaineko Zergaz (OHZ) gain, hondakinen eta uraren tasak kontuan hartu gabe. Gainera, txosten juridikoa jaso zutenean, argi geratu zen ezin zirela zaku berean sartu OHZ —zerga-mota bat delako— eta tasak. Haren esanetan, hori izan zen arazoa, hondakin eta uraren tasa ezin delako nahasi OHZrekin, alderdi Sozialista ez zen ausartu onura horiek bere horretan uztera. Horrez gain, bi urte pasa dira onurak desagertu zirela, eta hori ez da gertatu lege-arazoak zeudelako, eman nahi izan ez dituztelako baizik. Hortaz, bada, ezker abertzaleak onurak beti progresiboak izatea nahi izan du, baina

b) Renta complementaria de ingresos de Trabajo.

El Ayuntamiento podrá requerir de los posibles beneficiarios la documentación que estime conveniente en orden a dar cumplimiento al presente acuerdo y, en todo caso, como requisito imprescindible exigirá el estar al corriente en el pago de los tributos municipales.

Seguidamente.

Se producen las siguientes intervenciones:

* El Sr. Angulo (Concejal no Adscrito en la legislatura anterior) señala que se ha comentado con palabras muy despectivas la posición en los últimos años sobre las subvenciones y ayudas. La posición que adoptó la izquierda abertzale fue muy clara en el sentido de seguir manteniendo las bonificaciones. El problema era técnico, puesto que el Partido Socialista quería aplicar tabla rasa en las bonificaciones, en 400 euros, sin tener en cuenta que aparte del IBI, estaban las tasas de basuras y de agua. Cuando recibieron un informe jurídico, quedó claro que no se podía meter en el mismo saco el IBI, que es un tipo de impuesto, con las tasas. Ese fue el problema, el Partido Socialista no se atrevió a mantener esas bonificaciones porque había un problema jurídico-legal por el que las Tasas de basuras y agua no se podían mezclar con el IBI. Además de eso, han pasado dos años en que las bonificaciones han desaparecido no solo en esos aspectos, sino también en otros y no por problemas



legea errespetatuz, gaineratu du.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du ez litzatekeela mintzatuko aipemenengatik ez balitz. Arazoa da —dio— Angulo jauna, ia-ia beti bezala, saihests bideetatik ibiltzen dela, eta ondorioz, ondo deritzon guztia nahasten du eta zaila izaten da ulertzea bera. Izan ere, Gizarte Zerbitzuetara, Alkatetzara edo ondo deritzon lekura joko balu eta gauzak konparatu, ohartuko litzateke aurreko bi urteetako proposamena gaur osoko bilkurara ekarri denaren bezal-bezalakoa dela. Hots, beti izaten dira lege-arazoak eta teknikoak, baita egoera batzuen eta besteen arteko diskriminazioak ere, baina, berriro dio, zin egingo lukeela aurreko bi urteetako proposamena gaur hona ekarri denarekin ezin izango luketela bereizi.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du orduan kontua borondate politikoa zela, eta egungo afera ere borondate politikoena dela. Bera poztu egiten da, Udal honetan borondate politikoa eman delako, alegia, gai mota hauek aho batez onartu izanaz.

Horiek amaitutakoan.

5. Proposamena: Zinegotzi batek bigarren jarduera burutu dezan aldeko irizpena ematea.

legales, sino porque no se han querido dar bonificaciones. Lo que la izquierda abertzale siempre han pretendido es que las bonificaciones fueran progresivas, pero respetando la normativa.

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señalando que no intervendría si no fuera por alusiones. El problema es que el Sr. Angulo, como casi siempre, se va por los Cerros de Úbeda y entonces, mezcla todo lo que le apetece mezclar y raro es que se le pueda entender. Si se tomara la molestia de dirigirse al Departamento de Servicios Sociales, a Alcaldía o a donde le parezca oportuno, que coteje y compare la propuesta que había los dos años anteriores con la que se trae hoy al Pleno y verá que se parecen como dos gotas de agua. Los problemas legales y técnicos que pudiera haber, los hay, la discriminación y estudio de unas situaciones y otras, la hay. Insiste en que juraría que se podrían confundir las que se presentaron los dos años anteriores con la que se presenta ahora.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que, entonces era una cuestión de voluntad política y hoy también es una cuestión de voluntad política. Desde luego, se alegra de que haya voluntad política en este Ayuntamiento donde se ha logrado unanimidad para abordar de esta manera éte tipo de temas.

Finalizadas las intervenciones.

5.- Propuesta: informar favorablemente el desempeño de la segunda actividad a Concejal



municipal.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuko idazkari teknikoak, 2011ko urriaren 3an eginiko idazkiaren bidez, Udal honetako zinegotzi Jon Txasko Orgilles jaunak, "Uliazpi Fundazio"ko langileak, Udal honetako zinegotzi gisa bigarren jardura burutzeko eginiko eskaera aztertu da.

Examinada la solicitud del Secretario técnico del Departamento de Administración Foral y Función Pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa de fecha 3 de octubre 2011 por el que se solicita informe relativo a la solicitud de Jon Txasko Orgilles, empleado de la "Fundación Uliazpi", para el desempeño de una segunda actividad en su calidad de Concejal de este Ayuntamiento.

Halaber espedientean dauden txostenak, zehazki "Uliazpi Fundazioa" Gipuzkoako Foru Aldundiko erakunde autonomoko buruak 2011ko irailaren 15ean eta Udal honetako idazkari nagusiak 2011ko urriaren 6an eginikoak.

Vistos los informes obrantes en el expediente y en concreto el informe del Presidente del Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa "Fundación Uliazpi" de fecha 15 de septiembre 2011 e informe del Secretario General de este Ayuntamiento de fecha 6 de octubre 2011.

Kontuan izanik 53/1984 Legean xedatutakoa, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen Zerbitzura dauden langileen Bateriaezintasunei buruzkoa.

Considerando lo dispuesto en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, regulando las incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones públicas.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketa Batzordearen proposamena ikusi ondoren.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Udal honetan bigarren aktibitate bat egin ahal izateko hainbat langilek eskaera egin izan duela. Egiatan, bera eta bere taldea beti horren

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que en este Ayuntamiento se han presentado varios casos de trabajadores que han pedido autorización para desarrollar una



alde egon izan dira, hala ere, gai honen inguruan ezarri diren eragozpenak, trabak eta adierazpenak gogoratuta, esan behar du kasu honetan abstenitu egingo direla. Berari ez zaio iruditzen gaia lekuz kanpoko denik, bidezkoa iruditzen zaio, baina, berriro dio, urteetan zehar eskatu duten langileei eman ez bazaie, oraingoa gertakari puntual bat baino ez dela jakiten ez duten bitartean, eta etorkizunean bide beretik jarraituko dela, abstenitu egingo dira.

segunda actividad. Francamente, él y su Grupo han estado a favor siempre, pero recordando las cortapisas, pegas y pronunciamientos que ha habido sobre estos temas, tiene que decir que en este caso se van a abstener. El tema no le parece desencaminado, le parece correcto, pero repite que si eso no se ha permitido para distintos trabajadores que a lo largo de los años lo han ido solicitando, hasta que no tenga constancia de que éste no es un hecho puntual y de que en el futuro se va actuar de la misma manera, se abstendrán.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du une hauetan ez direla bi eginkizun publiko batean bateratzen baino egiten ari. Horrela, ez dira ari, Udalean % 100eko lanaldia izanik, kanpoko beste batekin bateratzen. Hori argi eta garbi utzi nahi du, etorkizunean horrelako zirkunstantziaren bat emango balitz.

* El alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) explica que lo que están haciendo en este momento es compatibilizar dos funciones públicas en un entero. No están compatibilizando un puesto de trabajo que puede estar en el Ayuntamiento al 100%, con otra actividad externa. Quiere que quede claro en qué términos se realiza, por si en el futuro se diera esta circunstancia.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, PP) eta 7 abstentzioz (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak),

El Pleno de la Corporación por mayoría de, 14 votos a favor (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, PP) y 7 abstenciones (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak),

ERABAKIDU

ACUERDA

Lehenengo. Bigarren jarduera bat burutzearen aldeko irizpena ematea.

Primero.- Informar favorablemente el desempeño de la segunda actividad solicitada.



Bigarren. Ebazpena bidezko lege-ondorioetarako Foru Aldundira igortzea.

Segundo.- Trasladar la presente resolución a la Diputación Foral solicitante a los efectos legales oportunos.

6. Proposamena: Errenteriako Udala Eresbil Fundazioaren kide egitea.

6.- Propuesta de incorporación del Ayuntamiento de Errenteria a la Fundación Eresbil.

Eresbil, euskal musikaren ondarea bildu, zaindu eta babesten jarduten duen artxibo pribatu gisa jaio zen 1974. urtean Errenteriako Andra Mari Abesbatzaren baitan.

Eresbil, como archivo privado dedicado a la recopilación, conservación y difusión del patrimonio musical vasco, nace en el seno de la Coral Andra Mari de Errenteria en el año 1974.

1977an Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Errenteriako Udalak Andra Mari Abesbatzaren artxiboa "Musikaren Artxibo Probintziala-Euskal Ereslarien Bilduma" gisa onartu zuten ofizialki, eta "Musikaren Artxibo Probintzialaren Patronatuaren Batzarra" izenekoa eratu zuten Artxiboa sustatu eta hobetzeko asmoz.

En 1977 la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria reconocieron oficialmente el archivo de la coral Andra Mari como "Archivo Musical provincial - Euskal Ereslarien Bilduma, constituyendo la denominada "Junta del Patronato del Archivo Musical provincial", para el fomento y mejora del Archivo.

Ondoren, 1986an, Batzarra desagitea eta Eusko Jaurlaritzarekin batera "Eresbil" sortzea erabaki zen. Hori horrela, maiatzaren 6ko 110/1986 Dekretu bidez "Eresbil" Euskal Ereslarien Bilduma-Archivo de Compositores Vascos izeneko Patronatua sortu zen. Izaera juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna du Eresbilek hasieratik, eta ondorengoek osatzen dute: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Errenteriako Udala eta Errenteriako Andra Mari Abesbatza.

Posteriormente, en 1986, se acuerda disolver la Junta y constituir, junto con el Gobierno Vasco, Eresbil. Así, mediante Decreto 110/1986, de 6 de mayo, se creó el denominado Patronato Euskal Ereslarien Bilduma- Archivo de Compositores Vascos, "Eresbil", con personalidad jurídica propia y capacidad de obrar, integrado por el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Errenteria y la Coral Andra Mari de Errenteria.



Aipatu Dekretuak, kalifikazio juridikoa saihestuta, Eresbil bere estatutuek (Dekretuarekin batera argitaratu zirenak) arautuko dutela baino ez du agintzen.

Dicho Decreto, eludiendo su calificación jurídica, tan sólo preceptúa que Eresbil se registrá por sus Estatutos (publicados junto con el Decreto).

Artxiborako erakunde juridiko egonkor bat sortzeko helburuarekin, 2007. urteaz geroztik Eresbil Patronatuaren baitan Fundazio izaera juridikoa eskuratzeko urratsak ematen hasi ziren.

En el seno del Patronato Eresbil, persiguiendo la creación de una entidad jurídica estable para el archivo, se iniciaron, a partir del año 2007, los pasos para alcanzar la forma jurídica de Fundación.

Helburu horrekin, 2011ko martxoaren 15ean Andra Mari Abesbatzak irabaztea xede ez zuen fundazio pribatu bat, iraupen zehaztugabekoa, eratu zuen FUNDACION ERESBIL - ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ ERESBIL - MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOA izenekoa alegia. Horretarako José Manuel Domingo Serrano Errenteriako notarioaren aurrean eskritura publikoa egin zen. Eskriturari sortze-gutun izaera eman zitzaion, atxiki nahi duten erakundeek fundatzaile gisa bat egiteko aukera izan dezaten.

Con este fin, con fecha 15 de marzo de 2011, la Coral Andra Mari constituyó, mediante escritura pública otorgada ante el notario de Errenteria, D. José Manuel Domingo Serrano, una Fundación privada sin ánimo de lucro y de duración indefinida denominada FUNDACION ERESBIL - ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ ERESBIL - MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOA, dando a la misma carácter de carta fundacional para que las entidades que lo deseen se adhieran con el carácter de fundadores.

Errenteriako Udala fundatzaile gisa bat egiteko gonbidatutako erakundeen artean dago, Patronatuaren kide gisa —Fundazioaren gobernu organoa—. Izendapen hori berariaz onartu beharko du Udalak, ekainaren 17ko 12/1994 Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeak aurreikusitakoari jarraiki.

Entre las entidades invitadas a adherirse como fundadores está el Ayuntamiento de Errenteria, como miembro del Patronato - órgano de gobierno de la Fundación -, nombramiento que deberá aceptar expresamente en la forma prevista en la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

Era berean, Udalak Eresbil Patronatuaren disoluzioa

Así mismo, el Ayuntamiento deberá aprobar la



onartu beharko du, baita Patronatuaren aktiboak eta pasiboak Eresbil Fundazioari eskualdatzea ere.

disolución del Patronato Eresbil y el traspaso de activos y pasivos del Patronato a la Fundación Eresbil.

Bestalde, 2011ko irailak 12an udal aholkulari juridikoak eta udal kontuhartzaileak elkarrekin eginiko aldeko txostena.

Visto el informe favorable redactado conjuntamente por la asesora jurídica y el interventor municipal, de fecha 12 de septiembre de 2011.

2011ko irailaren 26an Udal Kultura, Hezkuntza eta Gazteria arloko teknikariak emandako aldeko txostena.

Visto el informe favorable redactado por la Técnico de Cultura, Educación y Juventud del Ayuntamiento, de fecha 26 de septiembre de 2011

Kultura eta Hezkuntza Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión informativa de Cultura y Educación.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, kontu hau aspaldidanik — beharbada gehiegi pasa dituzte amaierara heltzeko— egiten ari zen lanaren amaiera denez, fundazioa lege-izaera berri honek eragina izango duela Artxibategiak hobeto funtziona dezan, eta jakina, eurek ados daude. Berak aipamen hau egin nahi izan du aspaldiko urteetan dinamika honetan ibili direlako Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Udala.

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que siendo como es esto, la culminación de un trabajo de muchos años, demasiados quizás los que ha costado llegar a esta conclusión, decir que este nuevo formato legal, como es la fundación, va a repercutir en un mejor funcionamiento del Archivo y están por supuesto de acuerdo. Únicamente quería hacer mención a esa dinámica que ha habido a lo largo de muchos años entre Diputación, Gobierno Vasco y Ayuntamiento.



* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du ohore bat dela Euskal Herriko Musikaren Artxiboa Erreterian egotea, eta alde horretatik, Udalak, ahal duen neurrian, ERESBILi babesa eta laguntza ematen jarraituko duela.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que es un honor que el Archivo de Música del País Vasco esté en Erreteria. Añade que desde ese punto de vista, el Ayuntamiento, en la medida de lo posible, continuará dando el apoyo y el soporte a ERESBIL.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

ERABAKIDU

ACUERDA

1. Onartzea Erreteriaiko Udala FUNDACIÓN ERESBIL-ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ERESBIL-MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOAren kide egitea erakunde fundatzaile izaerarekin.

1.- Aprobar la incorporación del Ayuntamiento de Erreteria a la FUNDACIÓN ERESBIL-ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ERESBIL-MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOA con carácter de entidad fundadora.

2. Onartzea akordio honekin batera, eranskin gisa, aurkezturiko estatutuak.

2.- Aprobar los Estatutos que se adjuntan como Anexo a este Acuerdo.

3. Espresuki onartzea Erreteriaiko Udalaren aldeko patroizendapena, baita Fundazioaren bigarren presidenteordetza ere.

3.- Aceptar expresamente el nombramiento del Ayuntamiento de Erreteria como Patrono y la Vicepresidencia Segunda de la Fundación.

4. Estatutuen 10.2.c artikulua araberak, Fundazioaren Patronatuaren kide izango dira, Erreteriaiko Udalaren ordezkari gisa, Julen Mendoza

4.- Conforme al artículo 10.2.c de los Estatutos serán miembros del Patronato de la Fundación en representación del Ayuntamiento de Erreteria, el



Perez alkatea eta Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi zinegotzia.

alcalde, Sr. Julen Mendoza Pérez y la concejala, Sra. Garazi López de Echezarreta Auzmendi.

5. Onartzea Eresbil Patronatuaren desegitea.

5.- Aprobar la disolución del Patronato Eresbil.

6. Onartzea Patronatuaren aktiboak eta pasiboak Eresbil Fundazioari lekualdatzea.

6.- Aprobar el traspaso de los activos y pasivos del Patronato a la Fundación Eresbil.

7. Alkatea ahalmentzea, zuzenbidean bidezkoa den neurrian, Errenteriako Udalaren izenean eta bera ordezkatzuz honako akordio hau eraginkorra izan dadin gauzatu beharreko egintzak gauzatu eta behar diren dokumentu publiko zein pribatu guztiak sinatu ditzan.

7.- Facultar al Sr. Alcalde, tan ampliamente como en derecho se requiera, para que en nombre y representación del Ayuntamiento de Errenteria realice los actos y otorgue cuantos documentos públicos o privados sean necesarios para dar efectividad al presente acuerdo.

7. Proposamena: Biziberritzeko Plan Nagusia "2011-2014 plangintza estrategikoa" onartzea.

7.- Propuesta: aprobación del "Plan General de Promoción del Uso del Euskera (EBPN-PGPUE). Plan Estratégico 2011-2014."

Aurrekariak:

Antecedentes

✍ 1982. Urtean 10/1982 Euskararen Legea eman zen. Lege horrek herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubideak aitortu eta beharrezko babesa eskaini zien beren aukerako hizkuntza ofizialean jardun ahal izateko.

✍ En 1982 se promulgó la Ley 10/1982, Básica del Euskera, por la que se reconocen los derechos lingüísticos de la ciudadanía y se les ampara en el uso del idioma oficial de su elección.

✍ 1997an Udaltzako "Errenteriako Udalean

✍ En 1997 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó la



euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko Udal Ordenantza" onartu zuen.

Ordenanza Municipal para la normalización y fomento del uso del euskera en el Ayuntamiento.

✍ 2003ko martxoak 28an Udalbatzak Erreterriako Udaleko Euskara Plana onestu zuen.

✍ El 28 de marzo de 2003 el Ayuntamiento-Pleno aprobó el Plan de Uso del Euskera.

✍ 2010eko maiatzaren 28an Udalbatzak "Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak" dokumentua onartu zuen.

✍ El 28 de mayo de 2010, el Ayuntamiento de Erreterria aprobó el documento denominado "Criterios para el uso de las lenguas oficiales".

✍ Udal euskara departamentuak orain "Erreterriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana", IV. Plangintzaldia (2008-2012) izeneko dokumentua prestatu du.

✍ Desde el departamento de euskera se ha elaborado el documento denominado "Plan de Normalización del uso del Euskera en el Ayuntamiento de Erreterria. IV. Período de planificación (2008-2012)".

✍ Eusko Kontseiluak 1998an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (aurrerantzean EBPN).

✍ El Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco aprobó en 1998 el Plan General de Promoción del Uso del Euskera (conocido como EBPN).

Udal Euskara departamentuaren Teknikari Koordinatzaileak, 2011ko urriak 4an emandako txostenean jasotzen denez, Erreterriako Udalak 2009 urtean EBPN onartzeko eman beharreko pausoak ematearen alde agertu zen.

Según se desprende del informe del Técnico Coordinador del departamento de Euskera, el Ayuntamiento se mostró favorable a dar los pasos para que fuera aprobado el Plan General de Promoción del uso del Euskera (EBPN).

Horrela, lehenik Euskararen Aholku Kontseilua sortu zen udalean, eta ondoren euskarak herrian bizi duen

En este sentido, por una parte se creó el Consejo Asesor del Euskera del Ayuntamiento, y por otra, se



egoeraren diagnosis egin du Siadeco enpresak.

ha realizado por la empresa Siadeco el diagnóstico sobre la situación que vive el euskera en el municipio.

Diagnosi hori oinarritzat hartuz onartzera aurkeztu den 4 urterako Plan hau prestatu da.

Tomando de base dicho diagnóstico se ha redactado este Plan estratégico para 4 años.

EBPN hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da.

El Plan General de Promoción del Uso del Euskera es un plan estratégico para continuar avanzando en la normalización lingüística.

Errenteriako Udalak EBPNren diseinua lehenengo aldiz egiteagatik eskatuko du diru-laguntza, eta horretarako 2011ko abendu amaiera aurretik Udalbatzak onartu behar du Plangintza hau eta baita Udaleko Erabilera Plana ere.

El Ayuntamiento de Errenteria solicitará subvención por realizar por primera vez el diseño de dicho Plan del EBPN. Por ello, antes de finalizar el mes de diciembre de 2011 el Ayuntamiento debe de aprobar El Plan, y, también, el Plan de uso del Euskera en el Ayuntamiento.

Gaia aztertu eta ontzat eman du Udalaren Euskararen Aholku Kontseiluak.

El Consejo Asesor del Euskera ha tratado y aceptado dicha propuesta.

Udal Euskara departamentuko teknikari-koordinatzaileak, 2011ko urriaren 4an, Errenteriako EBPN-a onestearen aldeko txostena egin zuen.

El Técnico coordinador del departamento de Euskera del Ayuntamiento con fecha 4 de octubre de 2011 ha emitido informe favorable a la aprobación del Plan General de Promoción del uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria.

Udal aholkulari juridikoak gai honi buruzko aldeko txostena eman du.

La Asesora Jurídica emitió informe favorable a dicha aprobación.



Euskara Batzordearen proposamena aztertu ondoren.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Euskera.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du EBPN-n eta Normalizazio Planean sartzea proposatzen zenean, EAJ/PNVek pentsatzen zuen euskalduntzea Euskaltegiari baldin bazegokion ere, Udalak urrats finkoa eta erabakiorra eman behar zuela herriko hizkuntza normalizatzeko lanetan. Horregatik, hain zuzen ere, sartu ziren EBPN-n eta horretarako, Euskara Departamentua handituta, berregituratu behar izan zuten, honek apustuari gogotsu heldu zion, eta berak Departamentuak mailarekin erantzun duela uste du. Gaineratu duenez, ez zen nahi herrian euskara arloan lana egiten zuten elkarte, giza-agente edo erakundeak bakoitza bere bidetik ibil zedin. Horretarako, ordea, herrian euskara benetan nola zegoen erakutsiko zukeen diagnosi bat egin behar zen, gero elkarrekin, ahaleginak bateratuz eta, batez ere, lehentasunak markatuz, Udalak berak eta norbanakako giza-agentek, Euskararen Aholku Kontseiluaren bidez denek lana egin zezaten lehentasunezko helburu horiek ezartzeko. Bere aburuz, une hau erakunde honek hizkuntza normalizatzearen alde egiten duen lanaren inflexio-puntua da. Horrela, eurentzat ohore bat da kontu hau aurrera ateratzea eta ibilbide eta emaitzarik onena opa diote. Gainera, EBPN honetarako egin den diagnosa zaharkitua geratu delako, laster berri bat egin behar izatea nahiko lukete. Berak lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du eta, jakina, bere taldeak aldeko bozka emango duela, esan du.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que cuando se proponía embarcarnos en el EBPN y el Plan de Normalización, por parte de EAJ/PNV se hacía en la creencia de que más allá de la euskaldunización que compete al Euskaltegi, el Ayuntamiento debiera dar un paso firme y decisivo en el trabajo por la normalización lingüística en el municipio. Para eso se embarcaron en el EBPN, fue necesario reestructurar en mayor dimensión al Departamento de Euskera, donde asumieron el reto con entusiasmo y hasta el momento cree que todo el Departamento ha estado a la altura. Se trabajaba desde la premisa de que no fuera por su lado cada una de las asociaciones, agentes sociales o instituciones, que trabajan en el municipio en el ámbito del euskera. Se trataba de elaborar un diagnóstico que reflejara cual era la situación real que atravesaba el euskera en el municipio para así, de manera conjunta, aunando esfuerzos y sobre todo, fijando objetivos prioritarios, tanto la institución municipal como los agentes sociales a nivel individual, mediante el Consejo Asesor de Euskera, trabajarán todos estableciendo objetivos prioritarios. Cree que esto es un punto de inflexión en el trabajo que se hace desde esta institución a favor de la normalización lingüística. Para ellos es un orgullo que esto finalmente se lleve adelante y desean que tenga el mejor de los recorridos y resultados, y que pronto haya que hacer un nuevo diagnóstico porque haya quedado obsoleto el que se realizó para el EBPN. Expresa su compromiso para seguir trabajando en esta línea y por supuesto, el voto de su Grupo será favorable.



* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du puntu honetarako eta hurrengorako —osagarriak direlako— balioko duen mintzaldi laburra egingo duela. Egia da —dio— gai hauek ia-ia aho batekotasuna eta kontsentsu handia erdietsi dutela. Haren esanetan, hainbat urtetan lana asko egin da eta, honek ekarpen handiagoa eta hizkuntzaren izaera onartzea esan nahi duenez, uste du horrek Eusko Jaurlaritzarengandik diru-laguntzak jasotzen jarraitzea, eta kasu batzuetan handiagoak, suposatuko duela. Beraz, ongiatorria ematen dio lan eta ibilbide horri, eta ondorioz, aldeko bozka emango dute.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du uste dutela Plan hau Euskararen erabilera sustatzeko eta normalkuntza bultzatzeko izango dela, eta ondorengo urteetan ere, beste hainbat gauza bideratzen saiatuko direla.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

ERABAKIDU

1.- Onespena ematea Errenteriako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari, 2011-2014 plagintza estrategikoa.

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señalando que va a hacer una intervención muy breve que sirve para este punto y para el siguiente, puesto que ambos se complementan. Es cierto que han sido temas que han despertado la práctica unanimidad y en todo caso un gran consenso. Se ha trabajado mucho a lo largo de varios años, por tanto, dado que esto implicará una mayor aportación y aceptación del hecho lingüístico y puesto que ello va a repercutir en que se sigan recibiendo subvenciones, en algunos casos mayores subvenciones, del Gobierno Vasco, bienvenido sea todo este trabajo y toda esta trayectoria, y evidentemente votarán a favor.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que con este Plan se va a promover el uso del Euskara e impulsar su normalización. Añade que, los años venideros asimismo intentarán llevar a cabo otras acciones en el mismo sentido.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

ACUERDA

1.- Aprobar el Plan General de Promoción del Uso del Euskara de Errenteria. Planificación Estratégica 2011-2014.



8. Proposamena: "Errenteriako Udalean Euskararen erabilera normalizatzeko plana. IV. Plangintzaldia (2008-2012) onartzea".

8.- Propuesta: aprobación del "Plan de Normalización del uso del euskera. en el Ayuntamiento de Errenteria. IV. Período de planificación (2008-2012)."

Aurrekariak:

Antecedentes

✍ 1982. Urtean 10/1982 Euskararen Legea eman zen. Lege horrek herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubideak aitortu eta beharrezko babesa eskaini zien beren aukerako hizkuntza ofizialean jardun ahal izateko.

✍ En 1982 se promulgó la Ley 10/1982, Básica del Euskera, por la que se reconocen los derechos lingüísticos de la ciudadanía y se les ampara en el uso del idioma oficial de su elección.

✍ 1997an Udalbatzak "Errenteriako Udalean euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko Udal Ordenantza" onartu zuen.

✍ En 1997 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó la Ordenanza Municipal para la normalización y fomento del uso del euskera en el Ayuntamiento.

✍ 2003ko martxoak 28an Udalbatzak Errenteriako Udaleko Euskara Plana onestu zuen.

✍ El 28 de marzo de 2003 el Ayuntamiento-Pleno aprobó el Plan de Uso del Euskera.

✍ 2010eko maiatzaren 28an Udalbatzak "Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak" dokumentua onartu zuen.

✍ El 28 de mayo de 2010, el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el documento denominado "Criterios para el uso de las lenguas oficiales".

✍ Udal euskara departamentuak orain "Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana", IV. Plangintzaldia (2008-2012) izeneko dokumentua prestatu du.

✍ Desde el departamento de euskera se ha elaborado el documento denominado "Plan de Normalización del uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria. IV. Período de planificación (2008-2012)".



2010eko maiatzaren 28an Udalbatzak onartutako "Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak" da orain onartzeko aurkezten den euskararen erabilera normalizatzeko planaren oinarri.

El documento denominado "Criterios para el uso de las lenguas oficiales", aprobado por el Ayuntamiento-Pleno el 28 de mayo de 2010 es el que ha servido de base para el Plan de Normalización del Uso del Euskera cuya aprobación se propone ahora.

IV. plangintzaldi horretan ezarritako erronka nagusia erabilera indartzea da, Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarritako irizpidearekin bat etorritz.

El objetivo principal de este IV. período de planificación, de acuerdo con el criterio marcado por la viceconsejería de política lingüística del Gobierno Vasco, es el de fortalecer el uso del euskera.

Errenteriako Udalak EBPNren diseinua lehenengo aldiz egiteagatik eskatuko du diru-laguntza, eta horretarako 2011ko abendu amaiera aurretik Udalbatzak onartu behar du Plangintza hau eta baita Udaleko Erabilera Plana ere.

El Ayuntamiento de Errenteria solicitará subvención por realizar por primera vez el diseño de dicho Plan del EBPN. Por ello, antes de finalizar el mes de diciembre de 2011 el Ayuntamiento debe de aprobar El Plan, y, también, el Plan de uso del Euskera en el Ayuntamiento.

Gaia aztertu dute Langileen Batzordeak eta Euskararen Aholku Kontseiluak.

El tema ha sido tratado por el Comité de Empresa, así como por el Consejo Asesor del Euskara del Ayuntamiento.

Hein berean Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak dokumentuaren egokitasunari buruzko aldeko txostena eman du.

Asimismo la Viceconsejería de Política Lingüística ha informado el documento favorablemente.

Udalren teknikari-normalizatzaileak, 2011ko urriaren 11n, dokumentu hori onestearen aldeko txostena egin zuen eta Euskarako teknikari-koordinatzaileak ere ontzat eman zuen.

La Técnico Normalizadora de Euskera del Ayuntamiento con fecha 11 de octubre de 2011 ha emitido informe favorable a la aprobación de este documento, y el Técnico Coordinador de Euskera también le ha dado su visto bueno.



Udalaren aholkulari-juridikoak gai honi buruzko aldeko txostena eman du.

La Asesora Jurídica ha emitido informe favorable a dicho acuerdo.

Euskara Batzordearen proposamena aztertu ondoren.

Vista la propuesta de la Comisión informativa de Euskera.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad,

ERABAKIDU

ACUERDA

1.- Onespina ematea Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planari, IV. Plangintzaldia (2008-2012).

1.- Aprobar el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria. IV. Periodo de Planificación (2008-2012).

9. Mozioa, Sozialistas Vascos – Euskal Sozialistak udal taldeak San Markoko hondakindegia buruz aurkezturikoa.

9.- Moción presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak relativa al Vertedero de San Marcos.

Merino jaunak, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldearen izenean, ondoko mozioa irakurri du:

Leída la siguiente moción presentada por el Sr. Merino en representación del Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak:

“Alkate jaunari

“AL Sr. ALCALDE

Juan Carlos Merino Gonzalez jaunak, Errenteriako udalean Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak

Juan Carlos Merino Gonzalez, portavoz del Grupo de Concejales Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak



taldearen bozeramaileak, San Markoko hondakindegia itxi eta estaltzearen inguruko mozioa aurkeztu du Udaltzarak aztertu dezan.

en el Ayuntamiento de Errenteria, presenta para su tratamiento en el Pleno la siguiente MOCIÓN con relación al cierre y sellado del vertedero de San Marcos.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa kudeatzen duen sozietateak dituen datuen arabera, San Markos Mankomunitatekoak garen udalerririk urtero 97.199 tona zabor sortzen dugu, eta horietatik 11.318 Sasieta hondakindegira, 39.083 Urtetako hondakindegira, 42.507 Lapatzekora eta 4.291 tona Bizkaiko Igorreko zabortegira.

Banaketa hau, lehenik eta behin, lehengo udal eta foru-kudeatzaileen nahia dela medio ematen da, hots, San Markoko hondakindegia 40 urte funtzionatzen ari ondoren, behin-betikotasunez ixtea nahi dutelako eta herritarrek aspaldidanik eskatzen ari denari erantzuna emango zaiolako. Neurri hori burutu ahal izan da Donostia- San Sebastiánek bere gain hartu zuelako Zubietako eremu donostiarrean erraustegia eta gainontzeko tratamendu-plantak egitea. Akordio zail horiei esker, gainontzeko hondakindegiek, baita Bizkaia lurraldeak ere, zabor hori guztia jasotzeko konpromisoa hartu zuten Gipuzkoako kudeaketa-planean aurreikusitako plantak eraikitzen ziren bitartean. Abian jartzeko unea iristen denean itxi ahal izango dira lurraldeko zabortegi guztiak, gisa horretan lortu ahal izango delarik hainbeste desiraturiko "zero hondakin"-era.

JUSTIFICACION

Los municipios que pertenecemos a la Mancomunidad de San Marcos generamos anualmente 97.199 Tm., de las cuales 11.318 se mandan al vertedero de Sasieta, 39.083 se depositan en el vertedero de Urteta, 42.507 se vierten en el vertedero de Lapatz y 4.291 se exportan al vertedero vizcaíno de Igorre, según datos obrantes en la sociedad gestora del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

Este reparto responde, en primer lugar, a la voluntad de los anteriores gestores municipales y forales, de cerrar definitivamente el vertedero de San Marcos, tras más de 40 años de funcionamiento, respondiendo así a una demanda ciudadana largamente planteada. Esta medida podía llevarse a cabo por efecto de la reciprocidad con que Donostia-San Sebastián respondía al asumir la construcción de la incineradora y resto de plantas de tratamiento en el enclave donostiarra de Zubieta. Gracias a esos complejos acuerdos, el resto de vertederos e, incluso el territorio de Bizkaia, acogían toda esa basura mientras durase la construcción de las plantas previstas en el plan de gestión gipuzkoano. Llegado el momento de su puesta en funcionamiento, el cierre del conjunto de los vertederos del Territorio podría hacerse efectivo y alcanzar así, el anhelado objetivo de "vertido cero".



Alabaina, Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuaren eta San Markos Mankomunitateko gobernuaren nahia hondakin-planta horiek egiten ez jarraitzekoa eta bere garaian hondakinen arazo larria ebazteko izenpeturiko akordioak eteteko denez, arrisku handian jartzen du Donostialdean eta Oarsoaldean egunero sortzen den zaborraren destinoa. Akordio haiek hautsi izana nahiko arrazoi da Gipuzkoako gainontzeko hondakindegiek, baita Bizkaikoak ere, uko egiteko zabor hori jasotzen jarraitzeko eta kudeatzeko, izan ere, zalantzak sortu baitira Gipuzkoa osoan aurreikusitako plan eta proiektuak geldituko ote diren beldurrez.

San Markoko hondakin zaharra ixteko eta estaltzeko proiektua, eta etorkizunean Errenteriako Pasaiako, Lezoko eta Altza auzoko herritarrek gozatzeko hiri-inguruko parkea bihurtzeko planak, beraz, arriskuan egon litezke.

Adierazitako guztiagatik, Socialistas Vascos–Euskal Sozialistak udal taldeak planteatzen du ondoko

MOZIOA

Lehenengo.- Errenteriako Udalbatzak sostengu osoa ematen dio San Markoko hondakindegia behin betiko ixteko eta estaltzeko akordioari, eta Tokiko Gobernuari eskatzen dio hori lehenbailehen

Sin embargo, la voluntad del gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Mancomunidad de San Marcos, de no proseguir con la construcción de las citadas plantas y paralizar la aplicación de los acuerdos en su día suscritos para la resolución del grave problema de residuos que padece el Territorio, pone en serio peligro el destino de la basura que se genera diariamente en el entorno de donostialdea y Oarsoalde. La ruptura de aquellos acuerdos es razón suficiente para que el resto de vertederos de Gipuzkoa e incluso el Territorio de Bizkaia, se nieguen a seguir recibiendo y gestionando esa basura, ante la incertidumbre que se abre en toda Gipuzkoa por la paralización de los planes y proyectos previstos.

El proyecto de clausura y sellado del viejo vertedero de San Marcos, y los planes para su futura reconversión en un parque periurbano para el disfrute de la ciudadanía de Errenteria, Pasaia, Lezo y el barrio donostiarra de Altza, pueden verse por tanto, definitivamente comprometidos.

Por todo lo que antecede, el Grupo Municipal Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, plantea la siguiente

MOCIÓN:

que se vio precisamente en aquella ocasión en que se intentó paliar parte del déficit de las residencias fue la dificultad de establecer un criterio homogéneo para repartir el dinero en función del déficit que había, porque los déficits eran ocasionados por muy diversos factores. Cuando dicen que en un plazo de seis meses se presente una propuesta de cómo paliar ese déficit, es precisamente porque entonces se vio esa dificultad. Los dos meses que dice la moción Socialista se solapan con los seis del estudio que ellos proponen, no tiene sentido que se haga ese estudio si en dos meses ya hay que proveer unas cantidades para entregar, cree que ahí se pisan los dos puntos. Por otro lado, confía en que si en seis meses se presenta un estudio consensuado en la Comisión de Política Social, y por tanto con la participación de los ayuntamientos que tienen residencias, una manera de paliar ese déficit, mediante modificación de créditos, se podría introducir en el Presupuestos de 2012.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), proposamen guztiek eta planteamenduak —berdinak edo diferenteak izan daitezkeenak— defendatzeko garaian bakoitzak duen koherentzia kontuan izanda, jakina, bere iritziz denak ahalik eta zintzotasun handienekin defendatzen dituzte proposamen ezberdinak. Hau argi eta berretsita utzi nahi du. Zergatik insistitzen duen bere taldeak bi hileko epe horretan? Ba, sartzeko unea aurrekontuak onartzekoa delako. Izan ere, Batzar Nagusietan orain artean onartu den bakarra zera da: “sei hileko epean Foru Aldundiak proposamen zehatz bat egin behar duela kontu hau konpontzeko”. Hau hain da etereo, hain lausoa, ez duela behartzen baitirudi, eta uste du kasu honetan edozein talde politikok Aldundia egitera behartu behar duela. “Sei hileko epe barruan proiektu bat aurkeztuko dugu” baino konpromiso zehatzagoa bere gain hartuko balu, eurek euren alda zezaketen, baina uste du errealitatean alperrik ibiltzea dela.

* El Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) partiendo por supuesto de la seriedad de todas las propuestas y la coherencia que cada uno tiene a la hora de defender planteamientos que pueden ser los mismos u opuestos, entiende que todos están defendiendo con la mayor honestidad posible las diferentes propuestas, quiere que esto quede claro y ratificado. ¿Por qué insiste su Grupo en ese plazo de dos meses?, porque el momento de meter o no, es el momento de aprobar los presupuestos. Lo único que hasta el momento se ha aprobado en Juntas es que “en un plazo máximo de seis meses se presente por la Diputación Foral una propuesta concreta para solucionar la cuestión...”. Eso es tan etéreo, tan difuminado, que es como no obligarle y cree que en este caso cualquier Grupo Político debe obligar a Diputación a que lo haga ahora. Si hubiera asumido un compromiso más concreto, más allá del “dentro de seis meses ya presentaremos un proyecto”, podrían cambiar, pero en realidad esto es un brindis al sol.



Repite que para él es un punto importantísimo el decirle a Diputación, “vé más allá, comprométete más y métele en los presupuestos”.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, PP) eta 7 abstentzioz (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak),

El Pleno de la Corporación por mayoría de, 14 votos a favor (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, PP) y 7 abstenciones (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak),

ERABAKIDU

ACUERDA

Onartzea EAJ/PNV taldeak aurkezturiko proposamen alternatiboa, gai honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

Estimar la propuesta alternativa presentada por el Grupo EAJ/PNV que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

Ondoren.

Seguidamente.

Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak udal taldeak, Errenteriako Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitzari buruz aurkezturiko mozioa bozkatu dute, gai honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

Sometida a votación la Moción presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak relativa a la Residencia de Ancianos Sagrado Corazón de Errenteria, que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto

Udalbatzak gehiengoz, aurkako 12 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV) eta aldeko 9 botoz (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP),

El Pleno de la Corporación por mayoría de, 12 votos en contra (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV) y 9 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP),



ERABAKIDU

Atzera botatzea Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak udal taldeak, Errenteriako Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitzari buruz aurkezturiko mozioa bozkatu dute, gai honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

12. Mozioa, Errenteriako Ezkerra udal taldeak Diru-sarrerak Bermatzeko Lege-aldaketaren aurka aurkezturikoa.

Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) aurkezturiko mozioa irakurri du:

“Iragan irailaren 12an Eusko Legebiltzarrak eztabaidatu zuen Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea. Eta Errenteriako Ezkerra udal taldeak salatzen du herritar asko geratuko direlako gizarte babesik gabeko egoeran, hala nola diru-sarrera horiek (RGI) jasotzen dutenen aurkako kriminalizazioa, Eusko Jaurlaritza bera egiten ari dena, pertsona ahulenen eskubideak bermatuko beharko lituzkeenean.

Uste dugu oinarritzko aldaketa bat sartu dela Legearen izpirituan, 2008an kontsentsu zabal baten bidez onarturikoa. Diru-sarrerak bermatzeko Legea babesa eta giza-garantiaren aldeko apustua izatetik

ACUERDA

Desestimar la Moción presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak relativa a la Residencia de Ancianos Sagrado Corazón de Errenteria, que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

12.- Moción presentada por el Grupo Municipal Errenteriako Ezkerra en contra de la modificación de la Ley de Garantía de Ingresos (RGI).

Leída la siguiente moción presentada por el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra):

“El pasado 12 de septiembre se debatió en el Parlamento Vasco la modificación de la Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social. Desde el Grupo Municipal Errenteriako Ezkerra queremos denunciar la situación de desprotección social a la que se ve abocada una parte importante de la ciudadanía, así como la criminalización de las personas beneficiarias de la RGI, que se está realizando por parte del propio Gobierno Vasco, el cual debería de ser garante de los derechos de las personas más desfavorecidas.

Consideramos que se ha introducido un cambio fundamental en el espíritu de la Ley aprobada en 2008 con un amplio consenso político. La Ley de RGI pasa de ser una apuesta por la protección y las



txirotasuna kriminalizatzeko elementu bat izatera pasa da. Gainera dena mozorrotuta egin da, hots, gizarte-ongizate euskal sistema optimizatzeko aitzakiapean, iruzurra pertsegitua izango dela eta garai zailtan elkartasun mugak bizi ditugula adieraziz.

garantías sociales, a ser un elemento de criminalización de la pobreza, todo ello enmascarado tras la excusa de una optimización del sistema vasco de bienestar social, la persecución del fraude y la limitación de la solidaridad en tiempos de austeridad.

Aurrezpen hau Euskadiko gizarte babesteko sisteman familiak eta pertsonak sartzeko eta bertan egoteko baldintzak gogortuz erdietsi nahi da, beti ere eraginkortasun irizpideak eta aurrekontua aurreztekoak kontuan hartuz, baina ez da sartzen prestazio hori eskatzen dutenei eragiten dituen egoera orokorrak baloratzera.

Esta austeridad se pretende conseguir incrementado los requisitos de entrada y permanencia de las familias y las personas en el sistema de protección social de Euskadi, atendiendo a criterios de eficiencia y economía presupuestaria, pero no se entra a valorar las situaciones globales que afectan a quienes están solicitando tal prestación.

Horregatik, Errenteriako Ezkerra udal taldeak, indar osoarekin errefusatzeko du giza-eskubideak mugatzeko edozein saiakera.

Por lo que desde grupo municipal de Errenteriako Ezkerra, nos vemos en la obligación de expresar nuestro más rotundo rechazo ante cualquier intento de limitar los derechos sociales.

Gure aburuz, euskal udalerrri batean gutxienez 3 urte erroldatuta egotea eskatzea; urte bat erroldatuta baldin badauka baina 3 baino gutxiago edo 5 urteko lan-bizitza eskatzea, diru-sarrera bermatzeko errenta jasotzen duten pertsona eta familiei duela urte bat geroztik ezartzen ari zaizkien azken sastada da, izan ere, jende horiek administrazio ezberdinek sartu dituzten aldaketei egokitu behar izan baitute prestazio hori jaso ahal izateko, murrizketa horiek lehendik ere handiak zirelarik diru-sarrera horiek jaso ahal izateko.

Consideramos que requerir empadronamiento de como mínimo 3 años en un municipio vasco; o vida laboral de 5 años si se tiene un año de empadronamiento, pero menos de 3, son modificaciones que terminan de dar la puntilla a las medidas restrictivas que desde hace más de un año se vienen imponiendo a las personas y familias que reciben la Renta de Garantía de Ingresos, que han tenido que ir ajustándose a las modificaciones introducidas por las diferentes Administraciones, para la consecución y mantenimiento de la prestación, restricciones que ya hasta la fecha eran numerosas para el acceso a la RGI.

80. urte inguruan euskal gizartea krisiak gogor jo

Cuando en los años 80 la sociedad vasca fue



zuenean, herri honek gizarte-ongizatea sortzearen eta pertsona ahulenak babestearen aldeko apustua egin zuen, horregatik ez daiteke onartu euskal gizarteak —gizarte-ongizatea eta gizartea babesteko sistemetan hamarkadetan eredugarria izan dena— orain atzerapen handia jasatea akordio politiko bat dela medio.

Pobrezia oraindik areagotzeko itxura guztiak dituen eta Eusko Legebiltzarrean planteaturiko proposamena oso larria denez, Errenteriako Ezkerra udal taldeak, Euskadin gizarteratzeko sareek eta horiek osatzen duten erakunde sozialek egin duten moduan, salatzen du duin bizitzeko aukerarik ez duen euskal herritarren zati garrantzitsu bat prekarizazio eta babes ezean uzten delako; eguneroko oinarritzko gastuei aurre egin ahal izateko baliabide ekonomiko guztiak edo partzialak kenduta hain zuzen ere.

Errenteriako Ezkerra udal taldeak bat egiten du Euskadin gizarteratzeko sareek eta horiek osatzen duten gizarte-erakundeek eginiko eskariarekin, zeinak gutxiengo batzuek bermatuta dituen gizartearen alde baikaude, izan ere, giza-eskubidez ari garenez, Errenteriako Udalbatzari eskatzen diogu har dezan ondoko

AKORDIOA

1. Errenteriako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio izenpeturiko ituna erretiratzeko eta baztertzeko diru-sarrera bermatzeko prestazio

golpeada por otra crisis, este país apostó por la generación de un estado de bienestar y de protección de las personas más desfavorecidas, por lo que no es admisible que la sociedad vasca, en la que el estado de bienestar y los sistemas de protección social han sido pioneros y modelos a seguir durante décadas, se vean ahora en retroceso flagrante por un acuerdo político.

Ante el más que posible recrudecimiento de la pobreza y siendo de una gravedad excepcional la propuesta planteada en el Parlamento Vasco, desde el grupo municipal de Errenteriako Ezkerra, al igual que lo han hecho las Redes para la Inclusión Social en Euskadi y las entidades sociales que las conforman, queremos denunciar la precarización y situación de indefensión en la que se deja a un grupo muy importante de la ciudadanía vasca que no cuenta con posibilidades de tener una vida digna; sin sustento económico total o parcial para hacer frente a los gastos más cotidianos.

El grupo municipal de Errenteriako Ezkerra se suma a la petición que desde las REDES PARA LA INCLUSIÓN SOCIAL EN EUSKADI y las entidades sociales que las conforman, que abogan por una sociedad garantista, porque estamos hablando de DERECHOS SOCIALES, por lo que trasladamos al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria el siguiente:

ACUERDO

1. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria pide al Gobierno Vasco la retirada del pacto suscrito y desechar la idea de aumentar los años de



soziala jasotzeko erroldatuta egon beharreko urteak gehitzeko ideia. Zaurgarritasun egoeran dagoen familia eta pertsona orori sistemak kasu egin beharko lioke.

empadronamiento para acceder a la prestación social de la RGI. Toda familia y persona en situación de vulnerabilidad tendría que ser atendida por el sistema.

2. Errenteriako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio laneratze-prozesuetan kontuan hartzeko diru-sarrera bermatzeko errenta (RGI) eskatzen duten pertsonen eta familien egoerak, horretarako prozesu horietan orientatzaileen lana osatuko lukeen langile sozialak sartuta, hain zuzen Oarsoaldeko Garapen Agentzia eta Oarsoaldeko Gizarte Ekintzako hainbat departamentuen laguntzarekin, Oarsoaldeko Eskualdean hainbeste arrakastarekin egiten ari zen bezala.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria pide al Gobierno Vasco que, en los procesos de inserción laboral, se tengan en cuenta las circunstancias personales y familiares de los y las solicitantes de la RGI, incorporando en los citados procesos a los y las trabajadoras sociales que complemente la labor de orientadores y orientadoras laborales, tal como se venía haciendo con tanto éxito en la Comarca de Oarsoaldea con la colaboración entre la Agencia de Desarrollo de Oarsoaldea y los diferentes Departamentos de Acción Social de Oarsoaldea.

3. Errenteriako Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari lanbide prestakuntza hobetzeko eskaintzak berritu eta gehitzeko, komunitatearen zerbitzura boluntarioritza-lanak egiteko planak eta programa osagarria ezarri ordez.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria pide al Gobierno Vasco que renueve y aumente las ofertas de mejoramiento y formación profesional, en vez de establecer planes y programas complementarios de trabajos voluntarios al servicio de la comunidad.

4. Errenteriako Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari etxebizitzako laguntzak jaso dezaketen elkarbizitza-unitateak gehitzeko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria pide al Gobierno Vasco la ampliación de las unidades de convivencia susceptibles de recibir las ayudas por vivienda.

5. Errenteriako Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari 23 urtez azpiko pertsonak sartzeko laguntza horiek jasotzeko”.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria pide al Gobierno Vasco la inclusión de las personas menores de 23 años como destinatarias de la prestación.”



Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Ferradas jaunak (Erreterriako Ezkerra) esan du, mozioa aurkezteko garaian kontuan izan dutela une hauetan Eusko Jaurlaritzan tramitatzen ari den aldaketa bat. Berari, gaiaz hitz egiteko orduan, gustatuko litzaioke ahalegin bat egitea hitz egiten ari direnaren aferak aurpegia, izenak eta deiturak dituelako. Eta hitz egiten ari direna zera da: 2011ko apirilean Erreterriako udaleko Gizarte Zerbitzuak Departamentuak 738 espediente zeuzkala tramitatuak eta Departamentu horrek berak uste du urte amaiera arte 800 espedienteetara irits daitezkeela. Espediente horiek —dio— usaian pertsona bat baino gehiago izaten dute atzean, eta, berriro dio, horiek izen-deiturak eta aurpegiak dituztela, eta zalantzarik gabe, bertan dauden batek baino gehiagok espediente horiei atxikiriko jendea ezagutuko duela. Berak uste du, konbentziturik dago, gutxienez, kezkatuta egongo direla ateratzen ari diren albisteekin, eta lege-aldaketa horren aurrean sorturiko kezka horrekin bat egiten du, batez ere, azken urte hauetan osatzen joan den gizarte-babeseko sistemari buruz galera eta gizarte-babesean atzerapena suposatzen duelako, Eusko Jaurlaritzan ordezkatuta dauden indar politikoek kontsentsu handiarekin erdietsitakoa. Zentzu horretan, bi kontu aitatu nahi ditu: bat, komunikabide eta informazio-iturri zenbaitek nola kriminalizatu dituen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dituztenak. Laguntzetan iruzur handia ematen dela esaten da, baina, bere iritziz,

balentria politiko gehiago beharko litzake eta ez izan ahulekin indartsuak eta indartsuekin ahulak. Edozein gisatan —dio— deigarria da iruzur-akusazio horiek berek une hauetan gizartearen dagoen iruzurrik handiaren aurka (zerga-iruzurra, hain zuzen ere) sistema eraginkorrek martxan jartzeko gauza ez izatea. Orain dela oso denbora gutxi Eusko Jaurlaritzak ezin

* Interviene el Sr. Ferradás (Erreterriako Ezkerra) manifestando que a la hora de presentar la moción, evidentemente va en función de una modificación que se está tramitando en el Parlamento Vasco en estos momentos. A la hora de hablar del asunto quisiera pedir el esfuerzo de que también se le ponga cara, nombres y apellidos a lo que están hablando. Y están hablando de que a fecha de abril de 2011 el Departamento de Asuntos Sociales del Ayuntamiento de Erreterria había tramitado 738 expedientes y ese mismo Departamento calcula que es posible llegar a los 800 expedientes de aquí a final de año. Estos expedientes involucran generalmente a más de una persona, e insiste en que tienen nombre y apellidos y tienen rostro y sin duda, más de uno de los presentes conocerá a gente que por distintas situaciones está vinculada a estos expedientes. Se imagina y tiene la convicción de que, cuando menos, estarán inquietos por las noticias que se transmiten. No puede más que compartir esa inquietud ante la reforma de Ley que se propone, porque fundamentalmente supone una pérdida y un retroceso sobre el sistema de protección social que en los últimos años se había construido con un consenso alto por parte de las fuerzas políticas representadas en el Parlamento Vasco. En este sentido quiere referirse a dos cuestiones, una es la criminalización que desde algunos medios y desde algunas fuentes se está haciendo de los protectores y protectoras de la Renta de Garantía de Ingresos, se

habla mucho de fraude en las ayudas, pero cuanto menos, piensa que haría falta más valentía política y no ser fuerte con los débiles y débil con los fuertes. En todo caso, llama la atención que buena parte de esas acusaciones de fraude provengan de quienes no son capaces de poner en marcha sistemas eficaces contra el mayor fraude que tiene esta sociedad en estos



izan ditu abian jarri zerga-iruzurraren aurkako tresnak, hain zuzen alderdi politiko zenbaitek sistema horiek martxan jartzearen aurka bozkatu zuelako. Bestalde, haren ustez, gaia kriminalizatu eta gezurrak esaten dira —hori ozen esan behar da— hitz egiteko garaian, artikulak egiteko orduan eta iritzia emateko unean. Hori horrela, nolabait Lege hori berritzearren eginiko ustezko txostenak esaten zuen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenen % 44k ez duela lanik egin nahi, eta hori egunkari zenbaitek, horri osoa hartuz, ateratako goiburua izan zen. Datuak estrapolatuz gero, ordea, eta batuketak eta kenketak egiten badituzte, ikusiko dute hori gezurra dela, eta, uste du hori ozen esan behar dutela. Hori gezurra da, zeren eta, gehixeago irakurriz gero, ikusiko dute 279 pertsonen errefusatu zutela lan-eskaintza bat, eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten 60.000 inguru baldin badira, oso zaila da goiburua eta albistea parekatzea. Hortaz, ez daiteke esan diru-sarrera horiek jasotzen dituen % 44k lan-eskaintzak errefusatzen dituenik. Azkenik, esan nahi du une hauetan behin ere baino derrigorrezkoa dela gizarte-babes sistema bat izatea, hots, pertsonen eskubide sozialak bermatuko dituen, eta horrexegatik aurkeztu dute mozio hau.

* Herzog jaunak (PP) esan du oraingoan itsusi eta gaizto-lanak egingo dituela, izan ere, bere irudiko hau demagogia hutsa da, nork berak bere burua zuritzeko eginikoa.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du eurek lehenengo puntuaren alde daudela, zeren eta, *“zaurgarritasun egoeran dagoen familia eta pertsona orori sistemak kasu egin beharko lioke”* esaldiak bakarrik merezi baitu aldeko bozka ematea. Era berean, bigarren puntuaren aldekoak dira, hain zuzen garrantzitsua iruditzen zaielako aldarrikatzea gizarte-

momentos, que es el fraude fiscal. Muy recientemente no se han podido poner en marcha en el Parlamento Vasco instrumentos contra el fraude fiscal, porque algunos Partidos Políticos votaban en contra de la puesta en marcha de esos sistemas. Por otro lado, se criminaliza y se miente, esto hay que decirlo bien alto, se miente a la hora de hablar, a la hora de hacer artículos y a la hora de transmitir opinión. Sin ir más lejos, un supuesto informe elaborado para dar cobertura de alguna forma a esta reforma de Ley, hablaba de que un 44% de las personas perceptoras de la Renta de Garantía de Ingresos no quiere trabajar, ese era el titular a página entera en algunos diarios. Si se extrapolan los datos y se hacen sumas y restas, verán que eso es una mentira y hay que decirlo bien alto. Eso es mentira, porque si se lee un poquito más son 279 las personas que rechazaron una oferta de trabajo, y si el total de personas acogidas a la Renta de Garantía de Ingresos ronda las 60.000, difícilmente se corresponde el titular con la noticia y no se puede decir que el 44% de los perceptores rechaza ofertas de trabajo. Finalmente, decir que en este momento es más indispensable que nunca contar con un sistema de protección social real que garantice el cumplimiento de los derechos sociales de las personas y por ello han presentado esta moción.

* Interviene el Sr. Herzog (PP) señalando que ahora sí va a ser el feo y el malo, porque esto es pura demagogia y no tiene más objeto que dorarse la píldora uno mismo.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que están a favor del punto primero porque solamente la frase, *“toda familia y persona en situación de vulnerabilidad tendría que ser atendida por el sistema”*, ya merece que se vote a favor del primer punto. También son favorables al segundo punto, les parece importante reivindicar que los



langile guztiek lan sozialean aritzea, batzuetan egin behar izaten duten lan burokratikoarekin alboratuta egoten direlako, eta instituzioen arteko lankidetzan ere jardun behar izaten dutelako. Euren aburuz hirugarren puntua ere sostengatuko dute, pertsonen gaitasuna indartzeak lehentasuna duelako. Gainera, garrantzitsua da, gero lanean hobekuntza eman dadin, lanik gabe dauden pertsona egokiak, prestakuntzaren bidez, jartzea. Horrekin ez du esan nahi komunitatearentzat boluntario gisa jarduten dutenek ezagupenik ez dutenik, baina uste dute egitekoak hobeto egiten direla lanbide-prestakuntzak egin ondoren. Halaber, laugarren puntuaren alde bozkatuko dute, euren aburuz beste soluziobideren bat egon daitekeelako, esaterako, etxe batean dauden gela-kopurua mugatzea. Hau, bere iritziz, soluziobideren bat izan liteke, eta litekeela dio, eta ez izan daitekeela, zeren eta jende askok etxebizitza behar gorri konpartitzen duelako, eta ez gustuz edo kapritxo. Bosgarren puntuarekin ere ados daude, besteak beste, jada baitaudelako 18 urtetik goragoko gazteak, baldintza zenbaiten pean, laguntza hori jasotzen dutenak, eta ondorioz, euren ez dute eragozpenik ikusten.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, jakinda zer nolako gaia den, berak ulertzen duela gai honek pasioak eragitea, baina bakoitzak aztertu behar ditu Legeak edo proposamenak dioena. Alabaina, argudioak adierazteko orduan ez dute tranparik egin behar. Izan ere, berak aspaldidanik jasotzen dituen albisteak, nola eboluzionatzen duten, zer eztabaidatzen den, zer dagoen jokoan, etab., ba, uste du, datu esanguratsu bat duela. Hots, Diru-sarrerak Bermatzeko politikaren barruan, 2011ko kostua lauhun eta hogeita bost milioi eurokoa izango da, eta hor daude batuta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzatarako Prestazio Osagarria, Guraso Bakarreko Laguntza eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak. Eta portzentaje hori —dio—

trabajadores y trabajadoras sociales deben dedicarse al trabajo social, ya que a veces está excesivamente relegado por el trabajo burocrático que tienen que desarrollar, amén de su posición favorable a la cooperación interinstitucional. Entienden que el punto tercero debe ser apoyado porque creen que la idea de potenciar la capacitación de las personas es prioritario. Piensan que lo principal es, situar mediante formación a las personas que están desempleadas en una mejor situación de salida para poder mejorar su ocupabilidad. No dice que los trabajos voluntarios al servicio de la comunidad no propicien o faciliten cierto conocimiento y les enriquezca, pero creen que la ocupabilidad se logra mejor desde la formación profesional. En el punto cuarto votarán a favor porque entienden que puede haber otro tipo de solución, por ejemplo limitar el número de habitaciones que hay en una casa. Ésta podría ser una solución, dice podría y no que tenga que ser, porque mucha gente comparte vivienda por pura necesidad y no por gusto o por capricho. Con el quinto punto también están de acuerdo, de hecho ya hay jóvenes que a partir de los 18 años, si cumplen una serie de requisitos, ya son destinatarios de la prestación, con lo cual, no hay inconveniente.

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que dado el tema de que se trata, entiende que levante pasiones y cada uno debe analizar muy bien lo que la Ley o la propuesta dice. Ahora bien, no tienen que hacer trampas a la hora de sacar argumentarios. Por ejemplo, personalmente hace tiempo que en este tema lleva recibiendo noticias, sobre cómo se evoluciona, cómo van los debates, qué es lo que está en juego, etc., y por ejemplo hay un dato, el coste para 2011 dentro de esta política de Garantía de Ingresos será de cuatrocientos veinticinco millones de euros. Ahí se suman la Renta de Garantía de Ingresos, la Prestación Complementaria de Viviendas, el Subsidio de Monoparentalidad y las Ayudas de Emergencia Social.



Euskadiren historiaren altuenetakoa da, Departamentu hori Ezker Batuak gobernatzen zuen garaikoa ia-ia bikoizten duena. Azken finean, esan nahi du ez dela zoragarria eta akatsik gabekoa izango, baina konparazioak eginez gero, ez da gaizki ateratzen. Beste gai bat ere aitatu da, esanez, bidegabekeria dela agiri zenbait, datu zenbait, etab. eskatzea. Berak, aitzitik, uste du hori ez dela bidegabekeria, bidegabekeria ez den bezala Ogasunak kasu zenbait ikertzea, espero duelako gero eta gehiago izatea ematen dituzten datuak Legearen araberrakoa izatea, eta ekonomia ezkutua suntsitzea, hala nola hobetu beharreko beste mila gauza. Era berean, gogorazi nahi du laguntza

berriak ere badaudela, hala nola, Etxebizitzaren Osagarria, Departamentua Ezker Batuak gobernatzen zuenean existitzen ez zena. Hori esaten du EBkoa gai zenbaitetan aitzindari, lider eta inor baino puruago azaltzen delako, eta gauzak bere lekuan jarri behar direlako. Ikusi behar da ea benetan laguntza eta enpleguaren (edozein laguntza-mota jasotzen duenak onartu beharrekoa) arteko lotura aldatu den, bere iritziz, hori asko aztertua izan delako. Berak, uste du, inork ez lukeela onartu behar bere dohamen guztiz aurkako lanik, ezta familiaren egoeraren baitakorik, etab. Bere iritziz, hori ondo araututa dago, eta ez bada horrela, insistitu dadila hor gehiago eragin behar dela, baina ez da deskalifikatu behar laguntza jasotzen duen pertsona bati —ahalbadu eta zirkunstantzia batzuk betetzen baditu— lana egin dezan eskatzen duena. Bere iritziz, gizarte-laguntza sistemak sarrerako atea behar du, baina baita irteerakoa ere. Gaineratu duenez, gaur egun legeak ia-ia betikotasuna aurreikusten du, baina, badirudi laguntza bat jasotzen badu, horrek betiko izan behar duela, ez dela egoera iragankor batean, edo gutxienez, eboluzio dezakeela. Sistemari sar dadila eta lagun diezagun lagundu behar denean, baina jar bitez bitartekoak, ahal izanez gero, kronikoa bihurtu ez dadin eta egoera horretatik irten dadin, gaineratu du. Zer hoberik eskaini dakioke, galdetu du. Eta, berriro dio, egin dezakeenari eskaini behar zaiola,

Pero es que este porcentaje es de los más altos de la historia de Euskadi, prácticamente duplica el que existía en la época en que Ezker Batua gobernaba en ese Departamento. En fin, por un lado no será maravilloso ni perfecto, pero en la comparación no sale mal parado. Se ha mencionado también otro tema, diciendo que es una criminalización cuando se exige cierta documentación, ciertos datos, etc. Personalmente piensa que eso no es criminalizar, de la misma manera que no se criminaliza cuando Hacienda investiga ciertos casos, que espera sean cada vez más y que les investigue a todos para ver si los datos que aportan son los que deben aportar según la Ley para suprimir las economías sumergidas,

así como mil cosas que haya que mejorar. Recordar también que hay nuevas ayudas, como la Complementaria de Vivienda, que tampoco existía cuando Ezker Batua gobernaba el Departamento. Lo dice porque como va de adalid, de lider y de más puro que nadie en ciertos temas, hay que dejar cada cosa en su sitio. Hay que ver si efectivamente ha cambiado el ligar las ayudas con el empleo que deben aceptar aquellos perceptores de cualquier tipo de ayudas, pero cree que eso ha sido tratado ampliamente y no piensa que nadie tenga que aceptar un empleo que en absoluto vaya con sus aptitudes, ni, dependiendo también de su situación familiar, etc. Cree que eso está debidamente reglamentado y si no, insístase en que ahí se debe incidir más, pero no se descalifique por el hecho de que a una persona perceptora del subsidio se le pida, si puede y se dan una serie de circunstancias, que además trabaje. Cree que el sistema de ayudas sociales tienen que tener puerta de entrada, pero también de salida. Hoy día la Ley lo contempla prácticamente a perpetuidad, parece que a quien se le da una ayuda tenga que ser para siempre, que no se trata de una situación transitoria o al menos, que pueda evolucionar. Éntre en el sistema y ayúdesele cuando haya que ayudarle, pero pónganse los medios para que si es posible no se cronifique y salga de la situación ofreciéndole un trabajo, ¿qué



bera ez da bestelakorik

esaten ari, eta bestelakoa interpretatu nahi duenak nahimen txarra du. Bera ez da esaten ari Diru-sarrera Bermatzeko Errenta edo beste edozein laguntza jasotzen duen oro lana egitera derrigortu behar denik. “Ezazue ahaztu ez dagoela erakunde bakar batek ere baliabide infinituak dituenik, eta oraintxe bertan Euskadin beste Komunitate bakar batean ematen ez diren laguntzak ematen direla”, esan die. Katalunia ere —hobekien kokatuta egon litekeena— ez da iristen, ezta hurrik ere, hemen ematen direnera, eta ez da bakar batean ere hemen bezain eskuzabal jarduten. Hainbestekoa da aldea, non esan baitezakete —egari dezente hurbilduta—, Euskadik berak Espainia guztian ordaintzen diren gizarte laguntzetatik % 40 gutxi gorabehera ordaintzen duela. Beraz, bada, adibidez, errolatua urte batetik hiru pasatzeko baldintza kritikatzan denean, uste du, aldaketa horiek ez direla, besterik gabe, alperrik eginikoak izaten, izan ere, beste komunitateetan ere bai baitaude baldintzak. Eta, adibidez, publikoki onartu edo ez, beretzat kontu jakina da dei-efektua eman dela, hau da, beste edozein komunitaten bizi ziren pertsonak hona etorri direla, jaso zezaketen laguntzak handiagoak zirelako. Bere aburuz badaude ahalik eta gehien arindu beharreko familia-egoerak, baina baliabideak ez dira infinituak, eta ondorioz, ez da inolako astakeria gutxienez hiru urte errolatuta egotea exijitzea. Gainera urte 1 ere izan daiteke, urte-kopuru zenbait lanean aritu dela justifikatuz gero. Berak ez du

inor aspertu nahi erreferentzia horiekin, baina datu horiek benetakoak eta frogagarriak dira, esan du. Euskadi European hobekien kokatuta dauden herrialdeen parean dago, Alemania, Dinamarca, etab.ez hitz egiten ari da, eta ondorioz, ez da Lege eskasa edo akordio txarra, nabarmendu du. Ezker Batuak planteatzen duen puntuen artean 3. deigarria

mejor se le puede ofrecer?. Insiste en que se le ofrezca a aquel que lo pueda desarrollar, no está diciendo otra

cosa, aquel que quiera interpretarlo de otra manera, tiene mala voluntad... No dicen que todo receptor de Renta de Garantía de Ingresos o cualquier otro tipo de ayuda esté al mismo tiempo obligado a trabajar. No olviden que ninguna institución tiene recursos infinitos y ahora mismo en Euskadi por ejemplo, se están dando ayudas en unos porcentajes que no se dan en ninguna otra Comunidad. Ninguna, ni tan siquiera Cataluña, que puede ser de las mejor situadas, llega ni de lejos a lo que aquí se da, ni tampoco se llega a dar en ninguna la amplitud de casos que se dan en esta Comunidad. A tal punto que se podría decir, acercándose bastante a la verdad, que Euskadi por si sola paga el 40% de las ayudas sociales que se pagan en toda España, los datos andarán por ahí. Por tanto, cuando se critica por ejemplo el haber cambiado la exigencia de estar empadronado de uno a tres años, cree que no es a humo de pajas el que se hayan puesto cortapisas de este tipo, porque existen también en otras Comunidades. Y por ejemplo, se admita en público o no, es sabido que ha existido el efecto llamada, es decir, personas que viviendo en cualquier otra comunidad se trasladan aquí por el hecho de que las percepciones que reciben son más altas. Entiende que hay situaciones familiares que hay que paliar en todo lo que se pueda, pero es que los recursos no son infinitos, por tanto no es ninguna barbaridad poner ahora el tope de tres años empadronado, que además dice que puede ser de un año si se justifica un número de años de trabajo

realizado. No quiere aburrir con más referencias, pero según datos fehacientes y constatables Euskadi está a la altura de los Países mejor situados de Europa, y está hablando de Alemania, Dinamarca, etc., y por tanto, no es una mala Ley o un mal acuerdo. Entre los puntos que plantea Ezker Batua le ha llamado la atención el punto 3 donde dice, “*el Pleno del*



egin zaio. Honek honela dio: *“Errenteriako Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari lanbide prestakuntza hobetzeko eskaintzak berritu eta gehitzeko”,* horraino ados dago, baina ez *“lanak eta programa osagarria ezarri ordez”*. Berak, gehienez ere zera jarriko zukeen: *“Denbora berean komunitatearen zerbitzura boluntariotza-lanak egiteko planak eta programak ezarri”*. Eta zergatik ez, zer dago txarra hor, galdetu du. Bere iritziz, hobekuntza-eskaintzak lanbide-prestakuntza sartuta egin behar dira, baina ez gizaritari zerbait eskaintzeko beste aukera hori aurka jarrita. Bere iritziz, komunitateari zerbait eskaini diezaioketen jasotzaile asko dago eta hori euren duintasuna eta autoestimua aldekoa da, esan du.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du euren moziorekin bat egiten dutela.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) uste du norbait bakardadean dagoela. Hau dio, Gizarte Zerbitzuetako Legea nola onartu zen ikusita, eta orain duten sostengua nolakoa den jakinda, bakardadean egon beharko luketelako. Bere aburuz, Euskadiko Caritasek, ezkertiar edo erradikala denik batere susmagarria ez denak, erreforma kritikatzeko norbaiti zer pentsatua eman beharko lioke. Haren iritziz, okerrena da kontrastatu gabeko gauzak esan direla, hau da, dei-efektuz hitz egiten da, baina gero datuek horrenik ez dela existitzen demostratzen dute. Haren aburuz, ez liteke esan babes-sistemak dei-efektua egiten duela eta hor utzi, ezta iruzurra egiten dela, hori ezer gutxi denean. Bere aburuz anekdotikoa baino ez da, eta inolaz ez determinantea sistemaren funtzionamendurako. Uste du eraikitzea hainbeste denbora pasa eta kosta den gizarte-ongizatea desmuntatzen ari direla, eta argi utzi nahi du hor batzuk alde batean eta besteak bestean daudela.

Ayuntamiento de Errenteria pide al Gobierno Vasco que renueve y aumente las ofertas de mejoramiento y formación profesional”, hasta ahí está de acuerdo, pero no *“en vez de establecer planes y programas”*. Personalmente diría como mucho, *“y al mismo tiempo establecer planes y programas complementarios de trabajos voluntarios al servicio de la comunidad”*, ¿por qué no?, ¿qué hay de malo en eso?. Hay que hacerlo incluyendo las ofertas de mejoramiento y formación profesional, pero no oponiéndolo a esa otra posibilidad de ofrecer algo a la sociedad. Hay mucho perceptores que pueden ofrecer algo a la comunidad y eso va en apoyo de su dignidad y autoestima.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que se suman a la moción.

* El Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) señala que algunos están en soledad, y dice esto porque en función de cómo se aprobó la Ley de Servicios Sociales y el respaldo que están teniendo en estos momentos se tendrían que encontrar solos. Que Cáritas Euskadi, que no es sospechosa de izquierdismo, ni de radicalismo, critique la reforma, a algunos les debiera hacer pensar. Lo peor es que se dicen cosas sin contrastar, se habla de efecto llamada, que luego los datos demuestran que no existe. No se puede decir que el sistema de protección social ejerce un efecto llamada y dejarlo ahí, como no pueden decir lo mismo del tema del fraude cuando es algo residual, cuando en todo caso es anecdótico y no es determinante en el funcionamiento del sistema. Piensa que se está desmontando el estado de bienestar que tanto ha tardado y que tanto ha costado construir, y en todo caso, unos están a un lado y otros están a otro.



* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), bakardadea edo sostengua aitatu direnez, esan nahi du Lege honek, parlamentarien botoei dagokionez, aurrekoak baino askozaz sostengu gehiago duela. Hori horrela da eta frogatu dezaketela, gaineratu du.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du Lege hura Legebiltzarrean ordezkaritza jakin bat zuela bozkatu zela eta hau, berriz, diferentearekin. Hori ere kontuan hartu behar dela, gaineratu du.

Mintzaldiak bukatutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botoekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV) eta aurkako 9 botoz (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP),

ERABAKIDU

Onartzea Errenteriako Ezkerra udal taldeak Diru-sarrera Bermatzeko Legea aldatzearen aurka aurkezturiko mozioa, gai honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

13.- Galdera-eskariak.

* El Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que ya que ha hecho mención a la soledad o al acompañamiento, decir que esta Ley en cuanto a número de votos de Parlamentarios tiene muchísimo más apoyo que la anterior. Es un hecho que está ahí y lo puede comprobar.

* El alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) señala que la otra se votó con una determinada representación en el Parlamento y ésta con otra distinta. Eso también hay que tenerlo en cuenta.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por mayoría de, 12 votos a favor (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV) y 9 votos en contra (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP),

ACUERDA

Estimar la Moción presentada por el Grupo Municipal Errenteriako Ezkerra en contra de la modificación de la Ley de Garantía de Ingresos (RGI), que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

13.- Ruegos y Preguntas



Ondoko galdera-eskariak egin dituzte:

Se producen los siguientes ruegos y preguntas.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) arren eskatu die bertan zeuden alderdi politikoei mozioak aurkezten dituztenean, edozein modukoak izanda ere, zinegotzi guztiei zor dieten errespetuagatik eta batez ere formak mantentzearen, zinegotzi bakoitzari kopia bat banatzeko, zeren eta, bera 9. 10. eta 11. puntuetan ia-ia jokoan kanpo egon da, soilik bozeramaileak zekitelako zertaz ari ziren hizketan. Horregatik, eskertu luke, horrelakorik berriro gerta ez dadin, zinegotzi bakoitzari kopia bat ematea.

* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) efectúa el siguiente ruego a los distintos Grupos Políticos presentes: cuando presenten mociones, sean del tipo que sean, bien de urgencia, etc., por respeto a todos los Concejales y sobre todo por guardar las formas y las maneras, repartan una copia a cada Concejal, pues él, durante tres puntos, el 9, el 10 y el 11, ha estado prácticamente fuera de juego porque solo los portavoces sabían de qué estaban hablando. Agradecería por tanto, para que esto no se vuelva a dar, se reparta una copia a cada uno de los Concejales.

Jarraian.

Seguidamente.

* Korta andreak (O.E. BILDU) arren zera eskatu du: Euskararen Normalizazioa Udalean gaur bertan onartu dutenez, mozioak bi hizkuntzetan sartzeko.

* La Sra. Korta (O.E. BILDU) realiza en euskera el siguiente ruego: como hoy han aprobado la Normalización del Euskara en el Ayuntamiento, que las mociones se presenten en las dos lenguas.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 21:30 horas



bereko 21:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números _____ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el alcalde. Certifico.